133/2024 EBAZPENA, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Euskadiko Espetxe Administrazioko Goi-mailako Teknikarien Kidegoko lan-poltsak (Eskala Juridikoa eta Psikologiako Eskala) eta Kidego Teknikoko lan-poltsak (Gizarte Hezkuntzako Eskala) eratzeko eta langileak horietan sartzeko dena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketari aplikatu beharreko erregulazioa ezartzen du, eta 3. eta 4. artikuluetan ezartzen ditu Administrazio honetako langileak eratzeko eta lan-poltsetan sartzeko kasuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko mahai sektorialaren akordioa onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 12ko Erabakiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publikoen alderdi espezifikoak arautzen dituenak, III. eranskinean aurreikusten du deialdi bat onartu behar dela euskal espetxeen transferentzia dela-eta hutsik dauden lanpostuak bitarteko izendapenen bidez betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari eskaera eginez.

Aurreikuspen hori betez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak eskatu eta txostena eman ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko azaroaren 13ko Ebazpenaren bidez, hautaketa-prozesurako deialdia egiten da, besteak beste, Euskal Espetxe Administrazioari atxikitako lanpostuen honako lan-poltsa hauek sortzeko:

- Espetxeetako Administrazioaren eskala juridikoa (A taldea, A1 azpitaldea)

RESOLUCIÓN 133/2024, de la Viceconsejera de Función Pública, de constitución de las bolsas de trabajo del Cuerpo Superior Facultativo (Escala Jurídica y Escala de Psicología) y del Cuerpo Técnico (Escala de Educación Social) de la Administración Penitenciaria de Euskadi y de integración del personal.

La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, establece la regulación aplicable a la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la CAPV y sus OOAA y establece en los artículos 3 y 4 los supuestos de constitución e integración de personal en bolsas de trabajo de esta Administración.

El Acuerdo de 12 de julio de 2022, del Consejo de Gobierno, por el que se aprueba el acuerdo de la mesa sectorial de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por el que se regulan aspectos específicos del personal empleado público que presta servicios en la Administración Penitenciaria Vasca prevé, en su Anexo III, la necesidad de aprobar una convocatoria para la provisión temporal mediante nombramiento de interinidad en puestos vacantes con motivo de la transferencia de los centros penitenciarios vascos, mediante una solicitud al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

En cumplimiento de esta previsión, previa solicitud e informe de la Dirección de Función Pública, mediante Resolución de 13 de noviembre de 2023, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, se convoca proceso selectivo para crear, entre otras, las siguientes bolsas de trabajo de puestos adscritos a la Administración Penitenciaria Vasca.

- Escala Jurídica de la Administración Penitenciaria (Grupo A, Subgrupo A1).



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T68KE-PZJP
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA | 2024/10/28 16:11:38

- Espetxe Administrazioko Psikologia Eskala (A taldea, A1 azpitaldea)
- Espetxeetako Administrazioaren Gizarte Hezkuntzako Eskala (A taldea, A2 azpitaldea)

- Escala de Psicología de la Administración Penitenciaria (Grupo A, Subgrupo A1).
- Escala de Educación Social de la Administración Penitenciaria (Grupo A, Subgrupo A2).

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak (abenduaren 26ko EHAA), azken xedapenetatik hirugarrenean, aldatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2022 Legea, eta bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzen du, honako hau ezartzen duena: *"Euskadiko Espetxe Administrazioko kidego bereziak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 76. artikuluan aurreikusitako talde eta azpitaldeetan sailkatuta, honako hauek dira: 1. – Espetxe Administrazioko goi-mailako teknikarien kidegoa, A taldean, A1 azpitaldean; 2. Espetxe Administrazioko teknikarien kidegoa, A taldea, A2 azpitaldea."*

La Ley 11/2022, de 1 de diciembre, del Empleo Disposición Final Tercera, modifica la Ley 7/2022, de 11 de noviembre, de los Cuerpos y de las Escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y añade una Disposición Adicional Quinta, que establece lo siguiente*: "Los cuerpos especiales de la Administración penitenciaria de Euskadi, clasificados en los grupos y subgrupos previstos en el artículo 76 del Estatuto Básico del Empleado Público, son (...) 1.- Cuerpo Superior Facultativo de la Administración Penitenciaria, en el grupo A, subgrupo A1.; 2.- Cuerpo Técnico de la Administración Penitenciaria, en el grupo A, subgrupo A2."*

Era berean, zazpigarren xedapen gehigarri bat gehitzen du, eta, bertan, besteak beste, Euskadiko Espetxe Administrazioko Eskala Juridikoa, Psikologiako Eskala eta Gizarte Hezkuntzako Eskala sortzen dira.

Asimismo, añade una Disposición Adicional Séptima en la que se crean, entre otras, la Escala Jurídica, la Escala de Psicología y la Escala de Educación Social de la Administración Penitenciaria de Euskadi.

Azaroaren 11ko 7/2022 Legea aldatuta Euskadiko Espetxe Administrazioko kidego bereziak sortzeak eragina du bai lan-poltsen eraketan, bai amaitutako hautaketa-prozesuko langileekin aldi baterako zerbitzuak emateko egiten diren bitarteko funtzionarioen izendapenetan, EAEko Administrazio Orokorrean indarrean dauden kidego edo eskalei buruzkoak izan behar baitute. Horrenbestez, lan-poltsak azaroaren 11ko 7/2022 Legearen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrietan adierazitako kidego eta eskaletan eratuko dira.

La creación de los cuerpos especiales de la Administración Penitenciaria de Euskadi, mediante la modificación de la Ley 7/2022, de 11 de noviembre, afecta tanto la constitución de las bolsas de trabajo como a los nombramientos de personal funcionario interino que se realicen para la prestación de servicios de carácter temporal con el personal del proceso selectivo finalizado, ya que deben referirse a los cuerpos o escalas vigentes en la Administración General de la CAE. Por consiguiente, las bolsas de trabajo se constituirán en los cuerpos y escalas indicados en las Disposiciones Adicionales Quinta y Sexta de la referida Ley 7/2022, de 11 de noviembre.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2024ko ekainaren 24ko Ebazpenaren bidez, aipatutako lan-poltsen prestakuntza teoriko-praktikoaren behin-behineko emaitzak argitaratu ziren.

Mediante Resolución de 24 de junio de 2024, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, se publicaron los resultados provisionales de la formación teórico-práctica de las bolsas de trabajo mencionadas.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2024ko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen: "G*oian aipatutako hautaketa-prozesuko merezimendu-lehiaketan eta prestakuntza teoriko-praktikoan izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak onartzea eta argitaratzea. Emaitza horiek ebazpen honen eranskin gisa ageri dira, dagozkien eskala elektrikoetan banatuta.* Halaber, ebatzi zen: *Hautaketa-prozesutik kanpo utzitako pertsonen zerrenda argitaratzea ebazten da"* eta *"Hautaketa-prozesuaren emaitzak Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari helaraztea."*

Mediante Resolución del 19 de julio de 2024, de la Directora del Instituto Vasco de la Administración Pública, se resuelve: *"Aprobar y publicar las puntuaciones definitivas obtenidas por las personas aspirantes en el concurso de méritos y en la formación teórico-práctica del proceso selectivo arriba referenciado. Estos resultados figuran como anexos a esta Resolución divididos en las escalas correspondientes".* Así mismo, se resuelve: *"Publicar la relación de personas excluidas del proceso selectivo"* y *"Dar traslado a la Dirección de Función Pública de los resultados del proceso selectivo".*

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratu eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari jakinarazi ondoren, Funtzio Publikoaren sailburuordearen ebazpen bidez, lan-poltsak eratuko dira eta deialdietatik datozen langileak sartuko dira, ebazpen honetan jasotako baldintzetan.+

Una vez publicados los resultados definitivos del proceso por parte del Instituto Vasco de Administración Pública, y comunicados a la Dirección de Función Pública, mediante Resolución de la Viceconsejera de Función Pública, se constituirán las bolsas de trabajo y se integrará al personal procedente de las convocatorias en los términos recogidos en la presente resolución.

Azkenik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera, ebazpen hau eta lan-poltsen zerrenda argitaratuko dira Enplegu Publikoaren Atarian, EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-poltsen atalean.

Por último, de conformidad a lo dispuesto en la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, se procederá a publicar la presente Resolución, así como el listado de las bolsas de trabajo en el Portal del Empleo Público, en el apartado de Bolsas de Trabajo de Administración General de la CAE y sus Organismos Autónomos.

Kontuan hartuta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikuluak emandako eskumena, zeina indarrean baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren arabera, honako hau

En virtud de la competencia atribuida en el artículo 17 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, vigente conforme a la Disposición Transitoria Primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y el artículo 3 de la citada Orden de 7 de enero de 2021, sobre selección del personal con la que atender la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Honako lan-poltsa hauek eratzea eta langileak integratzea, ebazpen honen eranskinean ezarritakoaren arabera:

- Goi-mailako Teknikarien Kidegoa, Espetxe Administrazioko Eskala Juridikoa.
- Goi-mailako Teknikarien Kidegoa, Espetxe Administrazioko Psikologia Eskala.
- Teknikarien Kidegoa, Espetxe Administrazioko Gizarte Hezkuntzako Eskala.

Bigarrena.- Ebazpen hau eta lan-poltsa horietako langileen zerrenda atarian argitaratzea, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/lanpoltsak

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko Sailaren web-orrian https://www.euskadi.eus/lanpoltsak helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

RESUELVO:

Primero.- La constitución de las siguientes bolsas de trabajo y la integración de personal, en los términos establecidos en el Anexo a la presente Resolución:

- Cuerpo Superior Facultativo, Escala Jurídica de la Administración Penitenciaria.
- Cuerpo Superior Facultativo, Escala de Psicología de la Administración Penitenciaria.
- Cuerpo Técnico, Escala de Educación Social de la Administración Penitenciaria.

Segundo.- La publicación de la presente Resolución y el listado de personal integrante de las referidas bolsas de trabajo en el Portal en la siguiente dirección https://www.euskadi.eus/bolsastrabajo

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en la dirección https://www.euskadi.eus/bolsastrabajo de la página web del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean/En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica

Maite Barruetabeña Zenekorta
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

ERANSKINA

Lehenengo oinarria.- Eratutako poltsak.

Euskadiko Espetxe Administrazioko honako lan-poltsak eratu dira:

- Goi-mailako Teknikarien Kidegoa, Espetxe Administrazioko Eskala Juridikoa.
- Goi-mailako Teknikarien Kidegoa, Espetxe Administrazioko Psikologia Eskala.
- Teknikarien Kidegoa, Espetxe Administrazioko Gizarte Hezkuntzako Eskala.

Bigarren oinarria.- Lan-poltsetako langileak.

Lehen oinarrian adierazitako lan-poltsetan sartuko dira Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2024ko uztailaren 19ko Ebazpenaren eranskinean jasotako langileak. Ebazpen horren bidez, lan-poltsa horiek eratzeko prozesuaren behin betiko emaitzak onartu ziren.

Hirugarren oinarria.- Ordena eta puntuazioa.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2024ko uztailaren 19ko Ebazpenaren eranskinean agertzen den hautaketa-prozesuaren ondoriozko hurrenkeran sartuko dira langileak, zero puntuazioarekin.

Laugarren oinarria.- Langileen egoerak eta lehentasunak

1. Langileak prestasun-egoeran sartzen dira.

2. Langileek, lehenetsita, honako aukera hauek izango dituzte:

- Edozein prestazio-modalitate
- Edozein lanaldi
- Edozein ordutegi
- Edozein eremu geografiko

ANEXO

Base Primera.- Bolsas constituidas.

Se constituyen las siguientes bolsas de trabajo de la Administración Penitenciaria de Euskadi:

- Cuerpo Superior Facultativo, Escala Jurídica de la Administración Penitenciaria.
- Cuerpo Superior Facultativo, Escala de Psicología de la Administración Penitenciaria.
- Cuerpo Técnico, Escala de Educación Social de la Administración Penitenciaria.

Base Segunda.- Personal integrante de las bolsas de trabajo.

Se integra en las bolsas de trabajo señaladas en la Base primera, al personal incluido en el Anexo de la Resolución de 19 de julio de 2024, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se aprueban los resultados definitivos del proceso para la constitución de las referidas bolsas de trabajo.

Base Tercera.- Orden y puntuación.

El personal será integrado en el orden resultante del proceso selectivo que consta en el Anexo de Resolución de 19 de julio de 2024, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública y con puntuación cero.

Base Cuarta.- Situaciones y preferencias del personal integrante

1. El personal se integra en la situación de disponible.

2. El personal que se integra tendrá determinada por defecto las siguientes opciones:

- Cualquier modalidad de prestación
- Cualquier jornada
- Cualquier horario
- Cualquier zona geográfica

3. – Ebazpen honetan lehenetsita ezarritako prestasun-egoeraren aldaketa eta lehentasunak Atariaren bidez aldatu ahal izango dituzte interesdunek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 12. eta 21. artikuluen arabera.

3.– El cambio de situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal, de conformidad con los artículos 12 y 21 de la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Aldaketek egiten diren egunaren biharamunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectúen.

Bosgarren oinarria.- Erregulazioa.

Base Quinta.- Regulación.

Lan poltsa honako hauen bidez arautuko da: Agindua, 2021eko urtarrilaren 7koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duena (EHAA, 2021eko urtarrilaren 25ekoa); eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 12ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren mahai sektorialaren akordioa onartzen duena, Euskal Espetxe Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten langile publikoen alderdi espezifikoak arautzen dituena (EHAA, uztailaren 22koa).

La bolsa de trabajo se regulará por Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos (BOPV, 25 de enero de 2021) y por el Acuerdo de 12 de julio de 2022, del Consejo de Gobierno, por el que se aprueba el acuerdo de la mesa sectorial de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por el que se regulan aspectos específicos del personal empleado público que presta servicios en la Administración Penitenciaria Vasca (BOPV, 22 de julio).

Seigarren oinarria.- Publizitatea eta ondorioak

Base Sexta.- Publicidad y efectos

1.- Ebazpen honen bidez sortutako lan-poltsak osatzen dituzten langileen zerrenda atarian argitaratuko da, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/lanpoltsak

1.- El listado de personal integrante de las bolsas de trabajo creadas por la presente Resolución se publicará en el Portal en la siguiente dirección: www.euskadi.eus/bolsastrabajo

2.- Ebazpen honek eta lan-poltsa horietako langileen zerrendak ondorioak izango dituzte Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko Sailaren web-orrian www.euskadi.eus/lanpoltsak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- La presente Resolución, así como el listado de personal integrante de las referidas bolsas de trabajo surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en la dirección www.euskadi.eus/bolsastrabajo de la página web del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.